



IRAGARPEN BEREZIA. ULTRATRIL EHUNMILAK

(2024/07/11an egina)

OSTIRALA (2024-07-12)

Egoera orokorra:

Giro fresko eta umela; fronte hotz bat igaroko da eta euria egingo du eta tenperatura maximoak asko jaitsiko dira. Goizean ipar-mendebaldeko haizearekin lainotuta egongo da eta tarteka euri txikia egingo du edo zaparrada txikiren bat botako du. Haizeguneetan haizea biziago ibiliko da. Arratsaldean zehar, aterrunak luzatuz joango dira eta atertzeko joera izango du. Tenperatura maximoak 20 °C ingurukoak izango dira.

Irteera: 18:00

Arratsaldean euria gero eta tartekatuago egingo du eta atertzeko joera izan arren, baliteke mendi gainetan gehiago kostatzea, hodeitza trinkoagoa izango delako.

18:00 – 00:00

Baliteke oraindik zirimiri apur bat egitea, batez ere mendi gainetan, hodeitza trinkoagoa izango delako. Hodeitza horrek baliteke zona altuetan ikuspena murriztea. Haizea ipar-mendebaldetik ibiliko da eta haize-boladak mendi gainetan 15-30 km/h ingurukoak izan daitezke; egunaren amaieran indarra galduz joango da haizea, aldakor gelditu arte. Tenperatura 1000 m-tik gora 8-9 °C-ren bueltan koka liteke.

T^a irteeran, 18:00etan (Beasain 160 m): 18-19 °C.

T^a 22:00etan (Zumarraga, 350 m): 15-16 °C.

LARUNBATA (2023-07-13)

Egoera orokorra:

Goizean goiz eta goizean zehar oraindik hodei dezente izango ditugu, mendi gainetan lainoa izan dezakegu, baina egunak aurrera egin ahala hodeitza zulatuz joango da eta ostarte politak irekiko dira. Haizea ahul ibiliko da, ipar ukituarekin, eta arratsaldetik aurrera ipar-ekialdekoa nagusituko da. Tenperatura maximoak 22-24 °C artekoak izango dira.

00:00 – 06:00



Goizaldean eta goizean goiz zerua lainotuta egongo da eta mendi gainetan lainoa izan dezakegu. Baliteke hodeitza horrek zertxobait bustitzea. Haizea ahul ibiliko da, ipar ukitu txiki batekin, eta mendi gainetan 10-20 km/h-ko abiadurarekin ibiliko da.

T^a Gorlan (667 m): 11-13 °C.

T^a Madarixan (514 m): 11-13 °C.

06:00 – 12:00

Hodeitza arinduz joango da, eta erdi mailako hodeiak eta goi-hodeiak nahiko saretuta iritsiko dira; tarteka ostarteak irekiko dira. Ipar haizea ibiliko da, ipar-ekialdekoa nagusituz, eta haize-boladak 10-20 km/h ingurukoak izango dira mendi gainetan.

T^a Azpeitian (53 m): 15-19 °C.

T^a Zelatunen (842): 12-16 °C.

12:00 – 18:00

Ostarte politak irekiko dira eta erdi mailako hodeiekin eta goi-hodeiekin tartekatuko dira. Haizea iparraldetik ibiliko da, ipar-ekialdekoa nagusituz, eta zertxobait bizituko da; haize-ufadak 15-30 km/h ingurukoak izan daiteke haizeguneetan.

T^a Tolosan (88 m): 22-24 °C

T^a Jazkuen (550 m): 20-22 °C.

T^a Amezketan (195 m): 22-24 °C

18:00 – 00:00

Erdi mailako hodeiak eta goi-hodeiak nagusituko dira. Ipar-ekialdeko haizea ahulduz joango da, norabide aldakorrekoa gelditu arte.

T^a Txindokin (1179 m): 13-17 °C.

T^a Lizarraustin (621 m): 15-19 °C.

IGANDEA (2023-07-09)



Egoera orokorra:

Litekeena da giro argia nagusitzea. Haizea hegotik ibiliko da, mendi gainetan biziago ibiliko da, eta arratsaldean iparraldera aldatuko da. Temperaturak nabarmen egingo du gora.

00:00 – 06:00

Baliteke bailaretan behe-lainoa sortzea. Mendi gainetan berriz, haizelekuetan, hego-ekialdeko haizea ibiliko da, eta haize-boladak 20-35 km/h ingurukoak izan daitezke.

T^a Etxegaraten (658 m): 11-14 °C.

06:00 – 12:00

Giro argia, goi-hodei batzuekin. Haizea hegotik ibiliko da, suabe, eta haizelekuetan biziago ibiliko da; mendi gainetan haize-boladak 20-40 km/h artekoak izan daitezke.

T^a San Adrianen (1000 m): 10-16 °C.

T^a Oazurtzan (741 m): 10-17 °C.

T^a Goierrin, zona baxuetan (Zerain 328 m- Beasain 160 m): 16-24 °C

12:00 – 18:00

Hodeiak eta urdinguneak tartekatuko dira. Haizea iparraldera aldatuz joango da.

T^a Aizkorrin: 18-22 °C.

T^a Goierrin, zona baxuetan (Zerain 328 m- Beasain 160 m): 25-30 °C